

Euskal AEko Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien sektoreko negozio-zifra % 7,8 hazi zen 2023an

Sektore hori Euskal AEko ekonomiaren balio erantsiaren eta enpleguaren % 2,4 da

Eustaten datuen arabera, 2023an Euskal AEko Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) sektorearen negozio-zifra 5.307 milioi eurokoa izan zen; hau da, % 7,8 igo zen aurreko urtearen aldean.

Bestalde, 2023an 2.852 enpresek osatu dute IKTen sektorea eta 27.754 lanpostu sortu dituzte; Euskal AEko ekonomia osoaren % 1,9 eta % 2,4, hurrenez hurren. Era berean, IKTen sektoreko enpresek sortutako 2.017 milioi euroko balio erantsia guztizkoaren % 2,4 izan da.

Aurreko urtearen aldean (2022), gora egin dute bai enpresa-kopuruak (% 1,3), bai enplegu okupatuak (% 4,2). 2010. urteaz geroztik (urte hori da eskuragarri dagoen serie historikoko lehen urtea), IKTen sektoreko enpresen kopurua % 36,4 hazi da eta lanpostu kopurua, berriz, % 24,9. Ekonomia osoarekiko pisu erlatiboak, ordea, ez du aldaketa esanguratsurik izan. 2010ean IKTen sektorea Euskal AEko ekonomia osoaren BPGaren % 2,7 zen eta 2023an, aldiz, % 2,4. Enpleguari dagokionez, 2010ean enpleguaren pisua % 2,1ekoa izan zen, 2023an baino hiru hamarren gutxiago (% 2,4).

Euskal AEn IKT sektoreko magnitude nagusiak lurraldeka eta jarduera ekonomikoaren arabera. 2023

	Enpresak (1)	Lanpostuak	Negozio kopurua (2)	Balio erantsi gordina cf (2)
IKT sektorea, guztira	2.852	27.754	5.307.153	2.017.243
Lurralde historikoa				
Araba/Álava	376	3.240	581.339	195.523
Bizkaia	1.704	16.508	3.417.127	1.314.273
Gipuzkoa	865	8.006	1.308.687	507.447
IKT manufaktura-industria	82	5.380	883.804	289.073
Merkataritza eta IKT zerbitzuak	2.770	22.374	4.423.349	1.728.170

(1) Baliteke enpresa-kopuruaren lurralde-batura ez etortzea guztizko kopuruarekin

Jarduera duten lurralde historiko bakoitzean behin zenbatu dira, eta EAE osoan behin bakarrik.

(2) Mila euro

Data 2025eko Uztailaren 2a

Iturria: Eustat, Informazioaren eta komunikazioaren teknologien IKT sektorearen estatistika


IKTen sektoreko enpresek sektore guztiak kontuan hartuta baino I+G+B jarduera gehiago egiten dituzte

IKTen sektorea Euskal AEko enpresa guztien % 1,9 baino ez da. Hala ere, I+G egiten duten enpresen % 14,9 biltzen du eta, 138,9 milioi euroekin, enpresa-sektorearen barneko I+Gko gastu osoaren % 9,0 hartzen du.

Gainera, sektore guztiak kontuan hartuta, barneko I+G jarduerak enpresen % 1,0k bakarrik egiten ditu; IKTen sektoreko enpresetan, berriz, ehuneko hori % 8,0ra iristen da.

2023an, sektore horretan I+Gean 1.931 pertsonak egin zuten lan “dedikazio osoko baliokidetzan” eta horien artean % 24,4 (471) emakumeak izan ziren. IKTen sektorean I+Gean lan egiten duten 1.931 pertsona horiek I+Gean lan egiten duten enpresen sektoreko langileen % 11,7 hartzen dute. I+Geko langile guztiekin alderatuz gero, % 8,3 dira.

Euskal AEko I+G+B IKT sektoreko enpresetan eta sektore guztietako enpresetan (%). 2023



Iturria: Eustat. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorearen estatistika-IKT

Berrikuntzari dagokionez, I+Gean gertatzen den bezala, alde nabarmenak daude sektore guztien eta IKTen sektorearen artean. Hala, 2023an, IKTen sektoreko 10 langile edo gehiagoko establezimenduen % 58,3 berritzaileak izan ziren, sektore guztien kasuan, aldiz, % 38,4.

Berrikuntza-jardueretan egindako gastuari dagokionez, IKT establezimenduek 438,9 milioi euro bideratu zituzten, sektore guztien gastuaren % 12,3. Gastu horretatik, 370,2 milioi 10 langile edo gehiagoko establezimenduei dagozkie, hau da, tamaina horretako enpresek gastatutako guztiaren % 11,8.

Euskal AEn IKT sektoreko Berrikuntzaren garrantzia eta I+Gko intentsitatea, lurralde historikoaren, jarduera ekonomikoaren eta enplegu-geruzen arabera (%). 2023

	Guztira		10 langile edo gehiago	
	Berrikuntza maila (1)	Barruko I+G maila (2)	Berrikuntza maila (1)	Barruko I+G maila (2)
SEKTOREAK, GUZTIRA	1,67	0,94	2,27	1,36
IKT sektorea, guztira	5,79	1,66	6,79	2,09
Lurralde historikoa				
Araba/Álava	5,31	1,57	5,45	1,63
Bizkaia	6,94	1,31	8,14	1,68
Gipuzkoa	3,37	2,50	4,20	3,49
IKT manufaktura-industria	6,78	3,71	6,87	3,73
Merkataritza eta IKT zerbitzuak	5,61	1,29	6,76	1,67

(1) Berrikuntzaren garrantzia: (berrikuntzako gastuak/negozioen kopurua)*100

(2) Barruko I+Garen garrantzia: (barruko I+G gastuak/negozioen kopurua)*100

Data 2025eko Uztailaren 2a

Iturria: Eustat. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien IKT sektorearen estatistika

IKTen sektoreak, gastura bideratzen dituen zifrek adierazten duten bezala, eta sektoreen guztizkoarekin alderatuta, negozio-zifrarekiko baliabide gehiago ere bideratu zituen I+G+Bra, bai berrikuntzarako bai barneko I+Gerako (berrikuntzako eta barneko I+Geko intentsitate-ratioak). Zehazki, berrikuntzaren intentsitatea % 5,8koa izan da sektore horretan eta % 1,7koa, berriz, sektore ekonomiko guztietan. Barneko I+Gren kasuan, ratioa % 1,7koa da IKTen sektorean eta % 0,9koa guztizkoan.


Merkataritza elektronikoa sektore guztietan baino orokortuago dago IKTen sektorean

IKT teknologien erabilera oso hedatuta dago sektore honetako enpresetan eta Internet enpresen % 99,7ra iristen da; sektore guztietan, berriz, enpresen % 96,0ra. Era berean, IKTen sektorean enpresen % 74,5ek dauka webgunea eta sektore guztietan, aldiz, % 59,7k.

Merkataritza elektronikoa ere gainerako sektoreetan baino garatuago dago. IKTen sektorean bide horren bidez erosi zuten establezimenduak % 72,1 izan ziren eta salmentak egin zituztenak % 14,4. Sektore guztietan, aldiz, % 26,3 eta % 8,8 izan ziren, hurrenez hurren.

Horren ondorioz, 2023an IKT establezimenduen % 73,7k merkataritza elektronikoa zuen eta sektore guztietan % 29,2k.

Euskal AEko IKT teknologien erabilera (%). 2023



Iturria: Eustat. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorearen estatistika-IKT

Azkenik, IKTen sektoreak ondasunen kanpo-merkataritzan duen eragina ez da oso esanguratsua: esportazioak 440,3 milioi euro izan ziren (32.750,4 milioi izan ziren guztira) eta inportazioak 606,7 milioi euro (26.944,2 milioi inportazio guztira); hau da, % 1,3 eta % 2,3, hurrenez hurren.

Truke horietarako eta esportazioetarako gehien erabiltzen diren produktuen artean honako hauek nabarmentzen dira: *IKTen beste produktu batzuk* (% 39,3), *Osagai elektronikoa* (% 37,6) eta *Telekomunikazio-ekipoak* (% 10,6). Inportazioetan: *Osagai elektronikoa* (% 36,6), *IKTen beste produktu batzuk* (% 33,4) eta *Telekomunikazio-ekipoak* (% 12,5).

Laburbilduz, 2023an, Euskal AEko Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) sektorearen negozio-zifra % 7,8 hazi zen eta 5.307 milioi eurora iritsi zen. Sektore horrek % 2,4ko ekarpena egiten dio euskal ekonomiaren balio erantsiari eta enpleguari.

Gainera, Euskal AEko enpresa guztien % 1,9 bakarrik izanik, I+Geko jarduerak dituzten enpresen % 14,9 biltzen du, barneko I+Gko gastu osoaren % 9,0 gauzatzen du eta berrikuntza-jardueretan egiten duen gastua, sektore guztien gastuaren % 12,3 da.

IKTen eta merkataritza elektronikoen erabilera hedatuago dago beste sektore batzuetan baino, bereziki webgunea edukitzean (sektore horretan % 74,5ek du webgunea eta sektore guztietan % 59,7k).

Azkenik, kanpo-merkataritzan eragin mugatua badu ere, esportazioak (440,3 milioi) eta inportazioak (606,7 milioi) IKT produktuetan, osagai elektronikoen eta telekomunikazio-ekipoetan oinarritzen dira.

Ohar metodologikoa:

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien garapenarekin, ekoizpenarekin, merkaturatzearekin eta erabilera intentsiboarekin lotutako jarduera nagusia duten manufaktura-industriek eta zerbitzu-industriek osatzen dute IKT sektorea, eta, ezaugarri gisa, berrikuntzan, aurrerapen teknologikoan eta produktibitatean tasa handiak ditu; beraz, eragin handia du jarduera ekonomikoan. [Eustaten webgunea](#). [Metodologia-fitxa](#): [IKTen sektorea](#)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel: 945 01 75 62